

IKG
INGURUMEN KUDEAKETAREN GIDALIBURUA

EUSK

MGMM
MANUAL DE GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL

CAST

IKG	INGURUMEN KUDEAKETAREN GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	1/16
-----	------------------------------------	------------	---------	------

AURKIBIDEA

1. kapitulua. HELBURUA ETA ESPARRUA.
2. kapitulua. INGURUMEN HOBEKUNTZA KUDEATZEKO SISTEMAREN ERAGINA.
3. kapitulua. BALDINTZAK ETA DEFINIZIOAK.
4. kapitulua. ERREFERENTZIA ARAUA.
5. kapitulua. INGURUMEN HOBEKUNTZA KUDEATZEKO SISTEMAREN OINARRIA.
6. kapitulua. INGURUMEN HOBEKUNTZA KUDEATZEKO SISTEMAREN ESKAKIZUNAK.
7. kapitulua. INGURUMEN HOBEKUNTZA KUDEATZEKO SISTEMAREN ESKULIBURUA: EGITURA ETA KUDEAKETA.

DATA		ALDAKETEN ERREGISTROA
1	18/03/2010	1. ald. Hasierako argitalpena
2	10/09/2010	2. ald. Titulazio berriak (graduak) gehitu ziren
3	10/07/2012	3. ald. Ekoscaneko kudeatzaile berria eta Ingurumena Hobetzeko Taldeko kide berriak izendatu ziren
4	17/03/2014	4. ald. DEPko zuzendari berriak kide berrien izendapena eta ingurumen konpromisoa berretsi zituen
5	17/03/2015	5. ald. Titulazio zaharrak kendu eta hobekuntza taldeen izendapena, ikasle kopurua eta konpromisoa eguneratu ziren
6	02/03/2016	6. ald. Ikastegiaren izena eta zuzendaria aldatu ziren
7	2016/02/20	7. ald. Zuzendaritza aldaketa.
8	2018/02/14	8. Industria Kimikaren Ingeniaritzako Graduaren desagertzea eta Ingeniaritza mekanikoko eta Industria-Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitza sortzea.

Berrikusia: Ekoscan
kudeatzailea

Onartua: Zuzendaritza

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	2/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	------

1.- HELBURUA ETA ESPARRUA

Gidaliburu honen helburua da modu orokorrean azaltzea GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLAK (Donostian dago, Europa plaza 1 helbidean; aurrerantzean, GIE) diseinaturiko Ingurumena Kudeatzeko Sistema (aurrerantzean, IKS).

GIEk honako titulazio hauek eskaintzen dizkie ikasleei:

- Ingeniaritza Zibileko Gradua
- Arkitektura Teknikoko Gradua
- Ingeniaritza Elektrikoko Gradua
- Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua
- Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua (desagertzean)
- Industria Mekanikoko Gradua
- Ingeniaritza mekanikoko eta Industria-Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitza, 2018/2019 ikasturtetik aurrera.

GIE, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) mendeko ikastegi publikoa da, eta kalitatean oinarrituriko ikastegi prestigiotsua izan nahi du, hala langileak nola ikasleak gustura aritu daitezen lanean, Gipuzkoako gizartearen beharrezanean erantzuten.

Gutxi gorabehera, 1.500 ikasle, 170 irakasle eta ikertzaile, eta AZPko 30 kide ditu.

Eskolako irakasleek ikerketa lan garrantzitsua egiten dute Ingeniaritza Mekanikoaren, Ingeniaritza Elektrikoaren, Ingeniaritza Kimikoaren, Ingeniaritza Elektronikoen eta Telekomunikazioen, Sistemen Ingeniaritza

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	3/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	------

eta Automatikaren, Fisika Aplikatuaren eta Enpresen Antolakuntzaren arloan, sail atalen bitartez. Ikerketa hori oinarritzkoa izan daiteke, doktorego tesien eta argitalpenen bidezkoa, edota aplikatua, enpresekin, ikerguneekin, klusterrekin, beste unibertsitate batzuekin nahiz Europako ikerketa programekin (BRITE, PROFIT, RTN) batera egindakoa. Halaber, bilerak egiten dira ikertaldeekin eta interesa duten enpresekin.

GIEk prestakuntzarako Europako programetan parte hartzen du (SOCRATES-ERASMUS). Horrekin batera, prestakuntza etengabeko jarduerak antolatzen ditu bertako egresatuentzat.

GIEk aliantza eta lankidetzak etengabeko sare bat osatu du, eta horixe du kapital soziala. Hauek dira sareko erakundeak:

- UPV/EHUko Ingeniaritza Teknikoko Eskolen sarea. Curriculuma diseinatzen eta programak koordinatzen dituzte elkarlanean.
- Estatuko Ingeniaritza Teknikoko Eskolen sarea, industrien eta herri lanen alorretakoa. Eskola hauekin kudeaketaren eta hezkuntza berrikuntzaren inguruko esperientziak trukatzeko, zuzendarien biltzarren bitartez.
- Estatuko Arkitektura Teknikoko Eskolen sarea. Eskola hauekin kudeaketaren eta hezkuntza berrikuntzaren inguruko esperientziak trukatzeko, zuzendarien biltzarren bitartez.
- ERASMUS eta SOCRATES sareak, ikasleak atzerrian prestatzeko.
- SICUE-SENECA sarea, ikasleek estatuko beste unibertsitate batzuetan egonaldiak egiteko.
- EAEko Industria Ingeniarien Goi Eskolak, 2. zikloko ikasleen jarraipena egiteko.
- Gipuzkoako Industri Ingeniari Teknikoen eta Perituen Elkargo Ofiziala. Programa hauek lantzen dituzte: 1. mailako ikasleei harrera egiteko programa, Bizitza Aktiborako Trantsizioa programa, lan munduan hasteko programa eta prestakuntza programak.

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	4/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	------

- Herri Lanetako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofiziala.
- Gipuzkoako Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala.

Aliantza iraunkor horiekin ez ezik, GIEk beste akademia, enpresa edo zientzia erakunde batzuekin ere jarduten du, aldian behingo hitzarmenen bidez, praktikak egiteko, enplegu zerbitzua emateko edota karrera amaierako proiektuak eta I+G-ko proiektuak gauzatzeko.

GIE Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren eraikina Ibaeta auzoan dago, Europa plazako 1. zenbakian. Lau bolumenek osatzen dute; alde batetik, eraikinaren erdigunean, bi prisma angeluzuzen daude, paraleloki lerrokatuak, eta, bestetik, gorputz nagusiaren alboan, bi bloke zirkular daude.

Eraikinak lau bloke handi ditu. Blokeetako bat banalekua da, eta beste hiruretan, oro har, laborategiak, bulegoak, ikasgelak eta zerbitzu orokorrak daude. Laborategien eraikina sektore zirkular handiena da; bulegoak sektore txikienean daude, eta ikasgelak eta zerbitzu nagusiak, berriz, prisma angeluzuzenean.

Guztira, 32 ikasgela eta mintegi daude, bakoitza erabilera jakin batekin, eta 48 laborategi; laborategietako 34 eraikinean daude, eta beste guztiak ikasgelen eraikineko seigarren solairuan.

Bestalde, irakasleentzako 75 bulego daude, guztiak ere bikoitzak.

Idazkaritza eta haren mendeko bulegoak prisma angeluzuzeneko behe solairuan eta lehen solairuko idazkaritza gunean daude.

Gainera, beste zerbitzu edo gune batzuk ere badaude: esaterako, gradu aretoa, 3. zikloko erabiltzaile gelak, bilera gela, sailei esleitutako informatika gelak, biltegiak, mantentze lanak kudeatzeko zerbitzua, artxiboak eta abar. Horiez gain, azpikontrataturiko beste zerbitzu batzuk ere badaude:

Rafetegia (lehiaketa publikoaren bidez kontratatua)

Erreprografia (lehiaketa publikoaren bidez kontratatua)

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	5/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	------

Azkenik, eraikinaren sotoan 103 garaje leku daude.

2.- KUDEAKETA SISTEMAREN ERAGINA

Aurreko kapituluan azaldu bezala, IHKS Ingurumen Hobekuntza Kudeatzeko Sistemaren jarduera Donostiako ikastegian baino ez da gauzatzen.

Hala, IHKSk eragina du GI Eren eraikinean gauzatzen diren jardueretan: unibertsitate irakaskuntzan, ikerkuntzan, kudeaketan eta jarduera osagarrietan (kafetegia eta erreprografia).

3.- BALDINTZAK ETA DEFINIZIOAK

Etengabeko hobekuntza. Ingurumena kudeatzeko sistema indartzeko prozesua da. Prozesu horrekin, ingurumenarekiko jokabide orokorra hobetzea lortu nahi da, erakundearen ingurumen konpromisoarekin bat eginez.

Oharra: prozesu hau ez dago zertan jarduera esparru guztietan aldi berean gauzatu.

Ingurumena. Erakunde batek jarduten duen ingurunea, airea, ura, lurra, baliabide naturalak, flora, fauna, gizakiak eta horien arteko harremanak barne.

Ingurumen alderdia. Erakunde baten jardueren, produktuen edo zerbitzuen elementua, ingurumenarekin interakzioa izan dezakeena.

Ingurumen alderdi zuzenak. Erakunde batek guztiz kudeatzen dituen alderdiak.

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	6/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	------

Zeharkako ingurumen alderdiak. Erakunde baten jardueren, produktuen eta zerbitzuen ondorioz ingurumen inpaktua eragin dezaketen alderdiak, erakundeak guztiz kudeatzen ez dituenak.

Ingurumen inpaktua. Erakunde baten jarduerak eta zerbitzuek ingurumenean eragiten duten edozein aldaketa kaltegarri zein onuragarri.

Ingurumen helburua. Erakunde batek bere buruari ezartzen dion ingurumen konpromisotik sortzen den ingurumen helburu orokorra, ahal dela kuantifikatua egoten dena.

Ingurumen jokabidea. Ingurumen Hobekuntzaren Kudeaketaren bidez neur daitezkeen emaitzak, erakunde baten ingurumen alderdiei dagozkienak eta ingurumen konpromisoan eta helburuetan oinarrituak.

Ingurumenarekiko konpromisoa. Erakunde batek ingurumena hobetzeko kudeaketaren inguruan dituen asmo eta printzipioen adierazpena, jarduteko esparru bat eta ingurumen helburuak ezartzen dituenak.

Antolakuntza. Funtzio eta administrazio propioak dituen konpainia, korporazioa, firma, enpresa, autoritatea edo erakundea, edo horien zati bat edota konbinazioa, sozietateak direnak nahiz ez direnak, publikoak nahiz pribatuak.

Oharra: unitate operatibo bat baino gehiago dituzten erakundeen kasuan, unitate operatibo bakar bat erakunde izan daiteke.

Hobekuntza emaitza. Erakundeak ingurumen hobekuntzaren kudeaketa ezartzeagatik ingurumen alderdietan izan duen bilakaera positiboa, indarreko ingurumen legeria betetze hutsetik harago doana.

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	7/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	------

Alderdi interesduna. Erakundearen ingurumen neurriekin loturiko edo neurriok eragindako pertsona edo taldea.

Egoera anormalak edo ohiz kanpokoak. Ekoizpenarekin eta/edo zerbitzuarekin guztiz bat ez datozen egoera planifikatu guztiak; esaterako, ekoizpena abiatu edo gelditzen deneko egoerak, urteko mantentze lanak, etab.

4.- ERREFERENTZIA ARAUAK

Ingurumen Hobekuntzako Kudeaketa Sistema hau ezartzeko, Ekoscan 2004 Araua hartu da erreferentzia gisa.

5.- INGURUMEN HOBEKUNTZA KUDEATZEKO SISTEMAREN OINARRIA

GIEren IHKS gidaliburu honetan oinarritzen da; bertan zehaztuta dago GIEk nola betetzen dituen erreferentzia arauak xedaturiko eskakizunak.

Gidaliburu honetan jasota daude, halaber, ingurumen konpromisoa, Ekoscan kudeatzailearen izendapena eta arauaren gainerako eskakizunak.

6.- INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN ESKAKIZUNAK

6.1. Zuzendaritzaren konpromisoa

Enpresa baten ingurumen konpromisoa ingurumenarekiko jokabidea hobetzeko erakunde mailan egin daitekeen adierazpen gorena da. Hori dela eta, GIEko Zuzendaritzak, ingurumena hobetzeak ekar ditzakeen onuren

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	8/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	------

jakitun, ingurumen konpromisoa ezarri eta mantentzen du, ingurumenarekiko jokabidea hobetze aldera.

INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA

UPV/EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak (GIE) (Donostia, Europa Plaza 1) baditu gaur egun 170 irakasle baino gehiago, 30 langiletik gora administrazio eta zerbitzuetan, eta 1.300 ikasle inguru. Titulazio askotariko eskaintza egiten dugu, ondoko graduak: Ingeniaritza Zibila, Arquitectura Teknikoa, Ingeniaritza Elektrikoa, Industria Elektronikoa eta Automatika Ingeniaritza, Ingeniaritza Mekanikoa eta Ingeniaritza Mekanikoko eta Industria-Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitza. Bestalde, kopiagintza zerbitzua eta kafetegia ere baditugu, biak GIEren instalazioetan.

2006tik ingurumena kudeatzeko sistema bat erabiltzen dugu garapen iraunkorra lortzeko eredu bat zabaltzeko kezka dugulako eta gure komunitatea ingurumenarekiko sensibilizatu nahi dugulako. Kutsaduratik prebenitzeko konpromisoa geure gain hartu eta konpromisoa hartzen dugu ingurumena gure erakundearen eguneroko kudeaketan sartzen joateko, egunetik egunera ingurumenarekiko jokabidea hobetuz.

Hau da proposatzen duguna aipatutako konpromisoa gauzatzeko:

- Hondakinen sorrera sistematikoki murriztu, ahal den guztietan birziklatuz eta berrerabiliz. Eta modu eraginkorrean erabiliko ditugu natur baliabideak, lehengaiak eta energia.
- Langileak (IIP eta AZP) eta ikasleak ingurumenaz prestatu eta kontzientziatu, gure interesaren partaide bilakatuz.
- Etengabeko ingurumen hobekuntza lortu, ingurumenari buruzko legeak bete baino haratago joanda. Horretarako, urtero definitu eta berraztertuko ditugu gure helburuak, helmugak eta ingurumen programak alderdi nagusiak hobetze aldera.

Data: 2017ko otsailaren 14an

Zuzendariaren sinadura eta eskolaren zigilua

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	9/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	------

Ingurumenarekiko konpromisoa GIEko langileen artean banatzen da, eta, eskaera egin ondoren, interesdunen eskura dago. Edonork erabiltzeko dago Eskolaren webgunean.

Halaber, eta ingurumenarekiko konpromisoan ezarritakoa betetzeko, GIEko Zuzendaritzak bermatu egiten du beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko dituela, eta, horretarako, Ekoscan kudeatzailea izendatzen du. Honako zeregin hauek izango ditu:

EKOSCAN GESTOREAREN IZENDAPENA

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak, Mercedes Urgoiti Agirre, Administrazio Burua izendatu du Ekoscan gestore, honako hauek izanik bere eginkizunak:

- *EKOSCAN ingurumen hobekuntzarako sistema definitzeko proiektuaren barne lidergoa.*
- *Ekoscan arauaren betebeharrak bete daitezela zaintzea, Unibertsitate Eskola Politeknikoaren ingurumen alderdien emaitzak etengabe hobetuko direla bermatuz.*
- *Sistemaren funtzionamenduaren berri ematea goi zuzendaritzari, sistema bera berraztertzeko eta etengabeko hobekuntzarako prozesuaren oinarri.*
- *Hautatutako konponbideen bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoaren analisia gestionatzea.*
- *Ingurumen hobekuntzarako taldeak sustatzea.*
- *Erakundearen ingurumen egoeraren ondorioak atera ahal izateko informazioa osatzea eta goi zuzendaritzari proposatzea, hobekuntza helburu gisa ezarri beharreko alderdiak eta, hala badagokie, hurrengo ingurumen hobekuntzarako planean garatu beharrekoak.*
- *Legezko betekizunen betetze mailaren*

NOMBRAMIENTO DEL GESTOR EKOSCAN

La Escuela de Ingeniería de Gipuzkoa, designa a la Jefa de Administración, Mercedes Urgoiti Agirre, como Gestora Ekoscan y cuyas funciones son:

- *Liderar internamente el proyecto de definición del Sistema de Mejora Medioambiental EKOSCAN,*
- *Velar por el cumplimiento de los requisitos de la Norma Ekoscan, asegurando la mejora continua en los resultados de los aspectos ambientales de la Escuela Universitaria politécnica,*
- *Informar del funcionamiento del sistema a la alta dirección para su revisión y como base para el proceso de mejora continua,*
- *Gestionar el análisis de viabilidad técnico-económico-ambiental de las soluciones seleccionadas,*
- *Impulsar el/los grupo/s de Mejora Medioambiental*
- *Elaborar la información para extraer las conclusiones respecto a la situación medioambiental de la organización y presentar a la alta dirección una propuesta de cuáles serían los aspectos a considerar como objetivos de mejora y que, en su caso, se desarrollarían en el próximo Plan de Mejora Medioambiental,*
- *Gestionar la realización de la evaluación del*

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	10/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	-------

ebaluazioa gestionatzea eta, ahal behar denean, lege egokitzapenerako planaren jarraipena egitea.

grado de cumplimiento de los requisitos legales y, en su caso, realizar el seguimiento del plan de adecuación legal.

Donostia, 2017ko martxoaren 9an.

Donostia-San Sebastián, 9 de marzo de 2017

Ingurumen konpromisoa ezartzeaz eta Ekoscan kudeatzailea izendatzeaz gain, Zuzendaritzak honako zeregin hauek ematen dizkio IKHSri:

- Hobekuntza talde bat izendatzea, ingurumenaren hobekuntza lortzeko aukerak azter ditzan. GIEri dagokionez, honako hauek osatuko dute hobekuntza taldea: Ekoscan kudeatzailea, GIEko Zuzendaritza, Cristina Peña (Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila), Loli Martín (SGIker-eko teknikaria, Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila), Montse Ferreira (LSI Saila), Mariano Mateos (Elektronika eta Telekomunikazioak Saila), Josu Maiora (Elektronika eta Telekomunikazioak Saila) eta ikasleen ordezkari bat. Hobekuntza taldeak erabakitzen ditu ezarri beharreko neurriak, hainbat ingurumen alderdiren ingurumen hobekuntza lortzeko; halaber, neurriak ezartzen laguntzen du, eta neurrien jarraipena egiten du.
- Ingurumen Hobekuntzako Plana onartzea eta, hala badagokio, Lege Egokitzapeneko Plana onartzea; halaber, plan horiek ezartzeko behar diren baliabideak ematea.
- Barne komunikazioko sistemak ezartzea, sustatze aldera langileek parte hartzea ingurumen hobekuntzako aukerak detektatzen eta neurriak ezartzen.

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	11/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	-------

- Lortutako emaitzak urtean-urtean berrikustea, hala Ingurumen Hobekuntzako Planari dagokionez nola Ingurumen Hobekuntzaren Kudeaketaren funtzionamenduari dagokionez.

6.2 Erakundearen ingurumen egoera ebaluatzea

IHSren irismena ezarri ondoren (eskuliburu honen 2. kapitulua), GIEk identifikatu egiten ditu ingurumen alderdiak, lege betekizunak eta ingurumen jokamoldearen adierazleak.

Ingurumen alderdien identifikazioa urtero egiten da, eta, horretarako, GIEk egindako jarduera eta zerbitzu guztiak hartzen dira aintzat, hala funtzionamendu baldintza ohikoetan nola ezohikoetan.

Alderdiak identifikatzeko, honako hauek hartzen dira aintzat: lehengai eta osagarri nagusiak, ontzien materialak, energia kontsumoak (energia elektrikoa eta gasa) eta ur kontsumoa, hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak, jarioak, isurtzeak eta, ahal den neurrian, zarata, usainak eta kutsatuta egon daitezkeen lekuak. Alderdiak zenbatesteko, aintzat hartzen dira sortutako kopuruak, lotura duten kostuak eta egokitzen jotzen diren beste datu batzuk.

Aplika daitezkeen **lege betekizunen identifikazioa** eta horien betetze mailaren ebaluazioa urtero egiten da, eta, aplikatu daitezkeen ingurumen legedia betetzetik desbideratzeak detektatzen badira, lege egokitzapeneko plan bat ezartzen da, zuzentzeko.

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	12/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	-------

GIEaren Zuzendaritzak, ingurumen alderdiak eta lege betekizunak identifikatu ondoren, gutxienez hiru **ingurumen adierazle** ezartzen ditu, eta horiek deskribatzen dute erakundearen ingurumen egoera; gutxienez, urtero berrikusten dira.

6.3. Ingurumen alderdiak lehenestea eta hobekuntza helburuak hautatzea

Identifikatu ondoren, ingurumen alderdiak lehenetsi egiten dira, hobekuntza helburuak ezartzeko baliatuko direnak hautatze aldera.

Alderdiak lehenesteko, honako hauei loturiko irizpideak hartzen dira aintzat: kopurua (kontsumoarena edo sorkuntzarena), arriskua (lege betekizunak edo osasunerako arriskuak egotea gai horretaz), kostu ekonomikoak eta ingurumen jokabidearen hobekuntza emaitzak murrizteko eta lortzeko ahalmena.

GIEri dagokionez, Hobekuntza Taldeak lehenesten ditu alderdiak. Lehenetsi ondoren, bi alderdi hautatzen dira, eta horien gaineko hobekuntza helburuak ezartzen dira. Bada, hautu hori Zuzendaritzak onartzen du.

6.4 Ingurumen Hobekuntzako Plana definitzea

Ingurumen Hobekuntzako Plana definitzeko, Hobekuntza Taldeak honako hauek hartzen ditu aintzat:

- Murrizte irtenbide posibleak identifikatzea, hautatutako alderdietarako.

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	13/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	-------

- Aztertuko diren neurri zehatzak hautatzea.
- Aintzat hartutako neurrien bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa aztertzea, alderdiei lotutako hobekuntza emaitza posibleak barne.
- Ingurumen Hobekuntzako Plana definitzea, ekintzak, arduradunak eta helburua lortzeko epeak jasota.
- Ingurumen Hobekuntzako Plana Zuzendaritzak onartzen du, eta arduradunak, epeak, jarraipen adierazleak eta beharrezko baliabideak esleitzen ditu, Plana egoki ezartzeko.

6.5 Ingurumen Hobekuntza Planaren jarraipena egitea eta emaitzen berri ematea

Ingurumen Hobekuntza Planean bertan ezarritako maiztasunarekin, Ekoscan kudeatzaileak Hobekuntza Planaren jarraipena egiten du, Planaren exekuzioan bildutako informazio eta/edo dokumentazio posiblea bilduta.

Urtero egiten den jarraipen lanean Hobekuntza Taldeak ere parte hartzen du, helburuak zenbateraino lortu diren egiaztatzeko eta lortutako hobekuntza ebaluatzeko, kontuan hartuta hasiera bateko egoera eta Ingurumen Hobekuntzako Plana ezarri ondoko egoera.

Urteko jarraipen horren ondorioz, dokumentu bat sortzen da; besteak beste, hauek jasotzen ditu:

- Lortutako murrizte emaitza zenbatuak.
- Egindako inbertsio eta gastuen zenbaketa, eta aurreztutakoa.
- Erdietsi gabeko helburuen justifikazioa.

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	14/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	-------

- Hobekuntza planetik eratorritako adierazleak ezartzea, baieztatuz etorkizunean egonkor mantenduko direla denboran.

Ingurumen Hobekuntzako emaitzak erakundeko gainerako kideei azaltzen zaizkie, eta alderdi interesdunen eskura jartzen dira eskaera egin ondoren; gutxienez, ingurumen alderdiak murrizteko lanean lortutako arrakasten berri emango da.

6.6 Zuzendaritzak ingurumen hobekuntzako kudeaketa berrikustea

GIEko Zuzendaritzak, urtean behin, berrikusi egiten du ingurumen hobekuntzako kudeaketa, honako hauek aintzat hartuta:

- Ingurumen alderdien datu eguneratuak.
- Aplikatu daitezkeen lege betekizunen identifikazioaren eta betetze mailaren ebaluazioaren inguruko informazioa.
- Ingurumen Jokabideko Adierazleen artetik lortuako baloreak eta aurreko urteotan hobekuntza helburutzat jotako alderdien jarraipena egiteko definitutako adierazleak.
- Ingurumen alderdiak lehenesteko lanaren emaitza.
- Ingurumen hobekuntzako planaren urteko jarraipena.

Berrikuste horren ondorio gisa, data eta zuzendaritzaren sinadura dituen dokumentua lortzen da. Horren bidez:

- Onartu egiten da murrizte emaitza zenbatuak jasotzen dituen dokumentua.
- Ingurumen alderdi berriak ezartzen dira, horien gainean hobekuntza helburuak ezartzeko.

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	15/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	-------

- Jaso egiten dira lege egokitzapeneko planaren aurrerapenak, bere eguneratzea eta eginiko jardueren maiztasun jakin bateko berrikustekak.
- Bestelako gaiak jasotzen dira, hala nola zuzendaritzaren konpromisoaren egokitasuna eta GIEn hobekuntzan aurrera egitea.

7.- INGURUMEN HOBEEKUNTZA KUDEATZEKO SISTEMARI BURUZKO ESKULIBURUA: EGITURA ETA KUDEAKETA

7.1 Egitura eta formatua

IHKSri buruzko eskuliburuaren egiturak bat egiten du agiri honen aurkibidean adierazitako kapituluekin.

IHKSri buruzko eskuliburuaren goiburuan izenburua, berrikuste maila, onartze data eta orrialdea agertzen dira.

7.2 Egitea eta berrikustekak

Ekoscan kudeatzailea arduratzen da IHKSri buruzko eskuliburu hau egiteaz, eta Zuzendaritzak onartzen du.

IHKSri buruzko eskuliburu honako hauen ondorioz berrikusten da:

- Zuzendaritzak IHKSaz egin duen berrikuspena.
- Ikuskaritzen emaitzak.
- Antolakuntza aldaketak IHKSari eragiten dioten jarduera eta prozesuen barne banaketan.
- Aldaketak IHKSari eragiten dioten Ekoscan arauan.

IKG	INGURUMEN KUDEAKETARAKO GIDALIBURUA	2018/02/14	Ald.: 8	16/16
-----	-------------------------------------	------------	---------	-------

Eginiko berrikuste eta aldaketen mailak jaso egiten dira Eskuliburuaren Aldaketen Erregistroan (1. orrialdean jasotzen da).

7.3 Artxiboa

Ekoscan kudeatzaileak indarrean dagoen IHKSari buruzko eskuliburuaren ale bat artxibatzen du, paper euskarrian eta Zuzendaritzaren onartze sinadurarekin.

Eskuliburua berrikuspenen bidez aldatzen denean, Ekoscan kudeatzaileak dokumentu zaharkitutzat jotzen du, eta halakotzat gordetzen, hiru urtez.

MGMM	MANUAL DE GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL	14/02/2018	Rev.: 8	1/16
------	----------------------------------	------------	---------	------

INDICE

Capítulo 1. OBJETO Y ÁMBITO DE IMPLANTACIÓN.

Capítulo 2. ALCANCE DEL SISTEMA DE GESTION DE LA MEJORA AMBIENTAL.

Capítulo 3. TÉRMINOS Y DEFINICIONES.

Capítulo 4. NORMA DE REFERENCIA.

Capítulo 5. SOPORTE DEL SISTEMA DE GESTIÓN DE LA MEJORA AMBIENTAL.

Capítulo 6. REQUISITOS DEL SISTEMA DE GESTIÓN DE MEJORA AMBIENTAL.

Capítulo 7. ESTRUCTURA Y GESTIÓN DEL MANUAL DEL SISTEMA DE GESTIÓN DE MEJORA AMBIENTAL.

FECHA		REGISTRO DE MODIFICACIONES
1	18/03/2010	Rev. 1. Lanzamiento inicial
2	10/09/2010	Rev. 2. Inclusión de nuevas titulaciones (Grados)
3	10/07/2012	Rev. 3. Nombramiento nuevo Gestor Ekoscan y nuevos miembros Grupo Mejora Ambiental
4	17/03/2014	Rev. 4. Ratificación nombramientos y compromiso medioambiental por nuevo Director de la EPD
5	17/03/2015	Rev. 5. Eliminación titulaciones antiguas, actualizar nombramientos grupo mejora, número de estudiantes y compromiso.
6	02/03/2016	Rev. 6. Cambio denominación de centro y cambio de Director.
7	20/02/2017	Rev. 7. Cambio Dirección.
8	14/02/2018	Rev. 8 Extinción de Grado en Ingeniería Química Industrial y creación de Doble Grado en Ingeniería Mecánica e Ingeniería Electrónica Industrial y Automática.

Revisado: Gestor Ekoscan

Aprobado: Dirección

MGMM	MANUAL DE GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL	14/02/2018	Rev.: 8	2/16
------	----------------------------------	------------	---------	------

1.- OBJETO Y ÁMBITO DE IMPLANTACIÓN

El objeto del presente Manual es realizar una descripción global del Sistema de Gestión Medioambiental (en adelante SGMA) diseñado por la ESCUELA DE INGENIERÍA DE GIPUZKOA - Donostia (en adelante EIG), situada en Donostia - San Sebastián, en la Plaza de Europa, 1.

LA EIG ofrece a sus estudiantes las siguientes titulaciones:

- Grado en Ingeniería Civil
- Grado en Arquitectura Técnica
- Grado en Ingeniería Eléctrica
- Grado en Ingeniería Electrónica Industrial y Automática
- Grado en Ingeniería Mecánica
- Doble Grado en Ingeniería Mecánica e Ingeniería Electrónica Industrial y Automática, a partir del curso 2018/2019

La EIG es un centro público dependiente de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), que aspira a ser un Centro de prestigio basado en su Calidad, donde el personal como el alumnado encuentren satisfacción en su trabajo dando respuesta a las necesidades de la Sociedad Gipuzkoana.

Cuenta con 1.500 estudiantes, 170 PDI y 30 PAS aproximadamente.

